

ERASO

MATXISTAK

METODOLOGIA

DENBORALIZAZIOA: 1H ETA 15 MINUTU

Metodologia hau udako herrietako jaien testuinguruan eraso matxisten lanketa egiteko baliatu daiteke. Bi ariketa ezberdin proposatzen dira: lehenengoan, kokapen testu bat oinarri hartuz, autodefentsa feministaz aritzea, esperientzia partekatuetatik teorian sakontzeko jauzia ematea eta erronka berriak identifikatzea lirateke helburuak, galdera ezberdinei jarraiki. Bigarren ariketan, behin lanketa teorikoagoa eginda, autodefentsa feministarako tresna praktikoetan sakonduko da. Herri, auzo nahiz Neska* Gazte taldeetako errealitatea ezberdina izanik, metodologia hau egoera bakoitzera egokitzea ere ezinbestekoa izango da.



LEHENENGO ARIKETA

'AUTODEFENTSA FEMINISTAN SAKONDUZ'

Helburua: Eraso matxisten eta autodefentsa feministaren inguruko lanketa teorikoa gauzatzea. Kontzeptuak barneratzea, erronka berriak identifikatzea eta esperientzia partekatuetatik teorian sakontzeko jauzia ematea.

Metodologia: 3-4 pertsonako taldeak egingo ditugu eta eraso matxisten kokapena jasotzen duen ondorengo testua irakurriko dugu. Kartulina bat pasatuko zaio talde bakoitzari eta 30 minutu izango dituzte testua irakurri eta taldeka galderak erantzuteko. Ondoren, talde handian elkartuko gara eta ideia nagusiak partekatuko ditugu (15 min).

Denboralizazioa: 45 minutu

A) KOKAPEN TESTUA: ERASO MATXISTEN ETA AUTODEFENTSA FEMINISTAREN INGURUKO BARNE MAILAKO IRAKURKETA

Eraso matxisten goranzko joera nabaria ikusten ari gara azken urteotan. Honen aurrean Neska* Gazte taldeok prest egon behar dugu. Testu honetan, jaien testuinguruan eman daitezkeen erasoen aurrean kontuan izateko gako diskurtsibo batzuk bildu ditugu:

Mugimendu Feministak urteetan zehar lan izugarria egin du gure herrietako jaiak espazio seguru eta gozagarri bilakatzeko helburuarekin. Neska* Gazteok ere lan handia egin dugu jaietan protokolo feministak sortzen, besteak beste. Gazte mugimenduetan, asanbladetan, jai batzordeetan... protokolo hauek martxan jarri eta aurrera eraman behar izan ditugu.

Autodefentsa Feministak gure aldarrikapena izaten jarraitu behar duela uste dugu. Aldarrikapen honetan sakontzen jarraitzeko, boteretzen eta espazioak hartzen jarraitu behar dugu. Honek ondorengora garamatza:

- Alde batetik, neska* gazteok gure artean aliantzak sortu behar ditugu. Espazioak ber-hartzen jarraitzeko ahaldu egin behar gara.

- Bestalde, espazioak hartzeak, gizonek egun okupatzen dituzten espazio horiek utzi behar izatea dakar. Hots, atzerapausuak eman beharko dituzte nahi eta nahi ez.

Bi prozesu hauek elkarreraginean ulertu behar ditugu. Hots, espazioak hartu eta lehiatu ahal izateko ahaldu egin beharko gara, eta hori gure arteko sarearen bidez bultzatu beharko dugu.

Honek guztiak, diskurtsiboki ere aurrerapausu batzuk ematea dakar. Gizonak modu zuzenean interpelatu beharko ditugu, izan ere, gure espazioetan erasoak gertatzearen erantzuleak beraiek dira. Espazio mixtoetan, gizonak bertan egote hutsatagatik erasoak egoteko arriskua sortzen da, beraz, gizon guztiak dira erasotzaile potentzialak.

Orain arte, espazioak seguruak izatearen ardura guztia neskok* edo emakumeok* gure gain hartzen genuen eta bada garaia gizonek ardura hau berena egiteko. Horregatik, uda honetan gizonek beraien lanketa propioak egin behar dituztelakoan gaude, honakoa baita espazioak seguruak izateko bidean, ezinbesteko baldintzetako bat. Lanketa horiek boterea uzteko izan behar dira. Hau da, ez dugu hausnarketak gurekin partekatzerik nahi edo beraien atzetik ibili behar izaterik. Ekintzetan, jaien antolaketan, erabakiak hartzerakoan, botere guneetan.. atzerapausuak behar dituzte espazio horiek geuk okupatu ahal izateko.

Tokian toki, protokoloak sortzea garrantzitsua da. Eta honez gain, garrantzitsua iruditzen zaigu **esperientzia, ideia eta proposamen berriak partekatzea**. Beraz, saia gaitzen hauek guztiak gure artean konpartitzen (eskualdeetan..), honetaz hitz egiteko tarteak hartzen, hiriburuen artean koordinatzen..

Protokoloei dagokienean, aurrez aipatu bezala, eraso baten aurreko erantzunean edo artatzean soilik jarri beharrean fokoa, **aurreko lanketa eta saretzeari** ere garrantzia aitortu behar diogulakoan gaude. Izan ere, erasoak, txosnaguneetatik haratago, familian, bikotekidearekin nahiz lagunartean ere ematen dira, besteak beste. Hala, aurretiko lanketa eta aliantzetan indarra jartzeak eraso anitzen politizazioa eta espazio ezberdinen geureganatzea ere ahalbideratzen digu.

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea harreman politikoetan (militantzia espazio, asanblada, bilera..) espazio ez-mixtoen beharra ikusten badugu, aisialdi espazioetan ere isla izan behar duela horrek. Partekatzen ditugun espazio guztiek duten izaera politikoaren identifikaziotik abiatuz, **aisialdi espazio ez-mixtoen planteamenduak** mahai-gaineratzen hasi behar gara.

Aipatutakoa lidergotza feminista bateranzko bidean ulertzen dugu. Honek guztiak talkak ekarriko ditu, eta horregatik beharrezkoa da neska* gazteon arteko aliantzak sortzea. Izan ere, kontziente izan behar gara aldaketak gauzatzeko une deserosoak sortu behar direla, eta horretarako beharrezkoa da kolektiboki indarrak biltzea.

Hau guztia bideorri bat da eta ez da Euskal Herri mailako protokolo bat eta bakarra egongo. Herri bakoitzaren testuingurura ondoen egokitzen den protokoloak diseinatu behar ditugu. Protokoloak sortzea eta berauek aurrera eramatea, maiz, Neska* Gazte Taldeoi edo Mugimendu Feministari delegatu izan zaigun lana izan da, eta uste dugu planteamendu hau

ez dela egokia. Antolatzailearen (jai batzorde, asanblada, espazio ireki) ardura izan beharko litzateke, sortzen duen espazio hori segurua izan dadin protokoloak sortu eta hauek aurrera eramateko erremintak eskaintzea. Dena den, batetik, kanpora begirako lana emakumeok* egin behar dugu eta gizonek salbatzailearen papera hartzea ekidin beharrekoa da; bestetik, iruditzen zaigu ezinbestekoa dela gure (Neska* Gazteon edo militante feministen) onarpena izatea erabaki eta prozesu orok.

Azkenik, borroka moldeei dagokienez, betiko irakurketa eta kontzentraren markotik irten beharrean gaudela uste dugu. Marra gorriak pasa dira jada, eta erantzunetan pausu bat gehiago eman behar dugu. Horrela, egitarauak bertan behara geratzea, herrian kolapso egoerak bultzatzea, bide mozketak egitea... bultzatu behar ditugu. Gainera, bereziki hiriburuetan egongo diren erasoak oso latzak izateko arriskua dago eta hauen aurreko erantzunak apurtzaileagoak izan behar direlakoan gaude. Dena den, aurretik esan bezala, bai protokoloak eta baita erantzunen kudeaketak ere testuinguru bakoitzean forma konkretu bat hartuko du. Beraz, hemen aipatutakoak, herrietan aurrera eraman ditzazkegun adibide batzuk dira soilik.

B) GALDERAK:

Hurrengo galderei erantzungo zaie testua oinarritzat hartuz:

- Nola ulertzen dugu autodefentsa feminista? Zertarako erabiltzen da?
- Zer esango zenukete dela autodefentsa feminista, tresna edo helburua?
- Zein motatako borroka moldeekin lotzen dugu autodefentsa feminista? Zergatik?
- Irakurri berri duzuen testutik zeintzuk esango zenukete direla ideia berritzaileenak? Zergatik?
- Zeintzuk dira autodefentsa feministaren erronka berriak? Aurrera pausurik emateko beharra ikusten duzue?

BIGARREN ARIKETA

‘JAIETAN AUTODEFENTSA FEMINISTA NOLA JARRI PRAKTIKAN’

Helburua: Jaiak espazio seguru izateko bidean, korapilo ezberdinak identifikatu eta hauei modu kolektiboan konponbideak bilatzea. Jaietan aplikatzeko ideia praktikoak ateratzea, tokian tokiko errealitaterako baliagarri direnak.

Metodologia: 3 talde ezberdin osatuko ditugu. Hiru kartulina izango ditugu eta hauei bakoitza taldeetako bati egokituko zaio. Hiru kartulinetan bi zutabe izango ditugu: korapiloen zutabea (adibide batzuekin) eta erantzun kolektiboaren zutabea. Tokatzen zaigun kartulinar, batetik, otutzen zaizkigun korapilo gehiago jasoko ditugu; bestetik, hauei guztiei (aurrez azalduko direnei nahiz jaso ditugun berriei) zein erantzun kolektibo eman diezazkiekegun jasoko dugu. Talde bakoitzak 10 minutuz izango du kartulina, eta ondoren, taldeen artean partekatuko ditugu, talde guztien eskuetatik 3 kartulinak pasatu arte. Beraz, aurreko taldeak jasotakoa eztabaidatuz eta osatuz joatea izango da helburua (ez da plenariorik egongo).

Denboralizazioa: 30 minutu

1.KARTULINA: NESKA* GAZTEON ARTEKO ALIANTZAK ETA AHALDUNTZEA

KORAPILOAK	ERANTZUN KOLEKTIBOAK
- Gure arteko aliantzak ezinbestekoak dira jai herrikoak guztiontzako espazio seguruak bilatzeko (jaiak perspektiba feminista batetik antolatzeko, erasoei erantzuteko...). Nola eraiki behar ditugu jaien bueltan gure arteko aliantzak?	
- Zein espazio edota bitarteko behar ditugu aliantza hauek eraikitzeke?	
.....	

2.KARTULINA: ESPAZIO SEGURUAK SORTZEA

KORAPILOAK	ERANTZUN KOLEKTIBOAK
- Askotan jaietan ematen diren eraso matxisten inguruan aritzean momentuko erantzunari baino ez diogu erreparatzen, baina, zein aurrelanketa egin behar ditugu?	
- Nola sortu espazio seguruak guztiontzat?	
.....	

3.KARTULINA: ERASOEI ERANTZUNA

KORAPILOAK	ERANTZUN KOLEKTIBOAK
- Nola erantzun erasoei modu eraginkorrean?	
- Jende batek normalizatu du jaietan erasoak ematea eta gure erantzunen aurrean berdin jarraitzen dute, zer egin erasoak desnormalizatzeko?	
- Zein erantzun ezberdin okurritzen zaizkigu inpaktua izan dezaketenak?	
- Nola bermatu neska* gazteon protagonismoa erantzunetan?	
- Nola bermatu kudeaketan dauden kideen zaintza?	
.....	

